

**BIZIKASI EKIMENA.****TALDE DINAMIZATZAILEEI ZUZENDUTAKO PRESTAKUNTZA TRINKOA**

Zuzendari agurgarria:

2017-2018 ikasturterako Haur eta Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan Hezkuntzako Sailburuordeak luzatutako antolatze moduari buruzko ebazpenetan **BIZIKASI ekimena** aurkezten da. Bertan ekimenaren inguruan egin beharrekoen artean zera adierazten da:

-Talde Dinamizatzailea martxan jarriko da ekimen hau garatzeko. Talde hori izango da jazarpen kasuetan egingo diren esku-hartzeen burua eta koordinatu ere egingo ditu. Talde dinamizatzaile hori Behatokiaren kide diren irakasleek osatuko dute.

Talde Dinamizatzailearen osaera:

Zuzendaria/Ikasketa Burua + Orientatzailea/Aholkularia + Elkarbizitza eremuan sentsibilizatutako irakasle bat.

Beraz, beharrezkotzat jotzen dugu Talde Dinamizatzaileen partaideak izango diren kide batzuen prestakuntza bermatzea eta horretarako eskualdeko Berritzeguneetan bi lan-saio antolatu dira, non honako edukiak landuko diren:

- Jazarpenaren ezaugarriak. Kontzeptualizazioa.
- Tresnak eta jazarpenarako gida, egoera desberdinen kudeaketan.
- Gelako elkarbizitza positiboa berreskuratzeko materiala.

Prestakuntza saio horien emaeleak **BIZIKASI ekimenaren** kideak izango dira.

Hori dela eta, **ikastetxe bakoitzetik bi kideren partaidetza bermatuko da prestakuntza horretan**. Batetik, ikastetxeko zuzendaria eta bestetik, elkarbizitzarako sentsibilizazioa eta ikastetxean ibilbidea duen irakaslea edo aholkularia/orientatzailea*

***Oharra:** ulertzen dugu aholkulari/orientatzaileek beraien profil profesionalari lotutako prestakuntza eta zenbait tresnen kudeaketan ezagutza dutenez, aukera zabaltzen zaigula prestakuntza trinko horren bitartez Talde Dinamizatzaileko partaide izango diren beste profesional baten formazioan sakontzea. Dena den, hori esanik, ikastetxe bakoitzak bere egoera eta ibilbideari erreparatuz, hartuko du azken erabakia.

Aurrerago eskualde bakoitzeko Berritzeguneak deialdia egingo dizue data eta lekua zehazteko.

Vitoria-Gasteizen, 2017ko urriaren 9an

Izpta.: Lucía Torrealday
Berritzatzeko Zuzendaria

Izpta.: Jose Angel Ayucar Hezkuntza
Ikuskari Nagusia